


Amerikarrak dira ugariena Euskal AEko biztanle atzerritarren artean

Euskal AE osokoa baino atzerrian jaiotako pertsonen portzentaje handiagoa duten 59 udalerrri ditugu

Eustaten datuen arabera, Euskal AEko atzerriko biztanleen artean, amerikarrak %36,3 dira; Espainia osoan %23. Bolivia, Kolonbia, Nikaragua eta Paraguaikoak, denak hegoamerikarrak, ditugu atzerritarren %19 eta amerikarren %52. 2015eko urtarrilaren 1ean biztanleen %8,6, 186.080 pertsona, atzerritarrak.

Euskal AEn bizi diren europarrak atzerritarren %27,5 dira; Espainian %46,4. Talde honetan errumaniarrak atzerritar guztien %11 dira; %16 Espainian. Errumaniarrak europarren arteko %43,3 dira, Espainia osoan baino ehuneko 9 puntu gehiago. Portugaldarrak gutxiago dira errumaniarrak baino, baina dezente gehiago dira proportzioan Euskal AEn (%17,6) Espainia osoan (%4,5) baino, europarrez ari garelarik.

1. grafikoa. Atzerritarrak nazionalitate-kontinentearen arabera (%)



Iturria: Eustat. Biztanleen udal estatistika 2015eko urtarrilaren 1ean

Euskal AEn afrikarren proportzioa (%27,1) Espainian (%23,3) baina handiagoa da. Espainian marokotarrak afrikar guztien %72 dira eta Euskal AEn %49 baino gutxiago. Euskal AEn bigarren nazionalitate afrikar ugariena aljeriarrak dira, %14,6; Espainian %6.

Euskal AEko atzerritarren artean txinatar eta pakistandarrak %7 dira. Gure arteko ia asiar bakarrak dira, %79, Espainia osoan %69 direlarik.

Lurraldeak aintzat harturik, nazionalitateen banaketa, kontinenteen arabera, askotarikoa da. Araban afrikarrak dira gehienak; Bizkaian amerikarrak. Bi kasuetan %40ren gainetik. Gipuzkoan amerikarren proportzioa handixeagoa da europarrena baino.

Bizkaian boliviarrak eta kolonbiarrak amerikarren %41 dira; Gipuzkoan banaketa askotarikoagoa delarik. Araban amerikarrak ez dira iristen %28ra; laurden pasa kolonbiarrak.


Gipuzkoan frantses asko dagoenez, europarrak gehiago dira lurralde horretan besteetan baino. Errumaniarren proportzioa (europarren ia %57) handiena da Bizkaian; Araban eta Gipuzkoan %31 inguru.

Gipuzkoak du afrikarrik gutxien hiru lurraldeen artean; horietako %60 marokoarrak. Araban eta Bizkaian ere marokoarrak gehiengoa dira afrikarren artean, %47 eta %43; Gipuzkoan baino gutxiago. Bizkaian eta Gipuzkoan hurrengo ugariak aljeriarrak eta senegaldarrak dira, baina bestelako ordenaz: Bizkaian aurrena senegaldarrak (%14,5) eta Gipuzkoan aljeriarrak (%15,2). Araban aljeriarrak %20,5; hirugarren nigeriarrak, %13,4.

Txinatarrak asiarren %60 dira Bizkaian; pakistandarrak %16,6. Gipuzkoan eta Araban pakistandarrak dira gehiengoa, batez ere Araban (%60,3).

Euskal AE osokoa baino atzerrian jaiotako pertsonen portzentaje handiagoa dutenak 59 udalerrri dira: 22 Arabakoak, eta haietatik 15 %10en gainera, gehienak Errioxakoak. Lau udalerrri daude Estatuaren portzentajearen gainera: Navaridas (%26 pasa); Berriatua (%14,5); Ordizia (%13,9); Markina-Xemein (%13,6).

2. grafikoa. Atzerrian jaiotako pertsonak, udalerrrien arabera (%)



Iturria: Eustat. Biztanleen udal estatistika 2015eko urtarrilaren 1ean

Bost udalerritan ia ez dago atzerritarrik (%2 baino gutxiago). Udalerrri horietako bi, Beizama eta Elduain, Gipuzkoakoak dira, eta beste bi, Lagran eta Harana, Arabakoak. Ezaugarriok dituen Bizkaiko udalerrri bakarra Garai da (311 biztanle, handiena).

Hiriburuek Euskal AEk baino atzerritar portzentaje handiagoak dauzkate: Gasteizek handiena, %11,8; Bilbok %10,2 eta Donostiak %9,6, biztanle guztien artean.

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estadistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Prensa zerbitzua: servicioprensa@eustat.es Tel.: 945 01 75 62

Euskal AEKo biztanleen udal estatistikari buruzko prentsa-ohar gehiago

Euskal AEKo biztanleen udal estatistika. Datu-bankua